

Funtsezko Sozietateak

Gure enpresaren proposamenak lortzeko, bazkide batzuk izan beharko ditugu, gure proiektuarekin zerikusia dutenak eta ekonomikoki aurrera ateratzen lagunduko digutenak. Horregatik uste dugu hornitzaileek gure anbizio eta helburu berberak izan behar dituztela.

Etxeteken, produktuen kalitatea eta bezeroarekiko hurbiltasuna dira ezaugarri garrantzitsuenak; hori dela eta, lankide moduan hautatu ditugun enpresak kontu handiz aztertu ditugu gure helburuak bete ahal izateko. Enpresa horiek lehen mailako materialak, espezialista tituludunak eta kantitate handitan eta modu iraunkorrean ekoizteko prestatutako instalazioak dituzte.

Gure balioak eta proposamenak kontuan hartuta, enpresa hauek gure betebeharrak oso ondo betetzen dituztela uste dugu.

Bazkideak	Zerbitzuak
	Aktiboen salmenta
	Aktiboen salmenta
	Hornitzailea
	Hornitzailea

Ikea

Ikea gure bazkide garrantzitsuenetako bat izango da, enpresa honetan lan egiten duten profesionalak eta industrian daukan ospeagatik. Gure proiektua bere tresna-kutxetan edo beste elementu batzuetan inplementatzea bilatuko dugu, hauek hobetzeko, eta horrela merkaturatzeko, salmenta horien irabazien ehuneko bat lortuz. Horrez gain, akordio ekonomiko batera iritsi gara gure produktua beren dendetan saltzeko, modu horretan edonork eskuratu ahal izango du gure kutxa.

Leroy Merlin

Leroy Merlinekin dugun konpromisoa Ikearekin dugunaren oso antzekoa da. Haien ondoan lan egingo dugu, gure asmakizuna produktu batzuetan jarritz, eta horregatik, salmenten ehuneko bat jasoko dugu. Akordio batera iristeko zain gaude, gure proiektua bere dendetan saltzeko, bere produktuetan bakarrik inplementatzeko beharrik izan gabe. Azkenean, gure hirian bertan aurki dezakegun enpresa da, eta instalazio handiak ditu, modu seguru eta erosoan lan egiteko.

IP Electronica

IP Electronica funtsezko bazkidea bat da guretzat, proiektua fabrikatzeko oinarrizko materialak ematen laguntzen digutelako. On line bidez lan egiten duen enpresa bat da, behar dugun materiala kopuru handitan saltzen diguna, produktuen aldaketak eta konponketak egiten dizkiguna eta hobekuntzak egitea ahalbidetzen diguna. Izan ere, gure bezeroak beti produktu onenak eta berrienak izatea bilatzen dugu. Beraz, beti material hauen stock minimo bat eduki beharko dugu konponketa eta berrikuntza hauek edozein momentutan egiteko.

Automation24

Automation24 enpresarekin, IP Electronica bezala, gure material-hornitzailea izango da. Baina, kasu honetan, material zehatzagoak, garrantzitsuagoak eta prezio altuagokoak izango dira. Beraz, eskaerak ez dira aldizkakoak izango, beharrezkoak direnean baizik. Hauek nohizbehinka soilik beharko ditugu, eta kopuru txikiekin hainbat proiektu osa ditzakegu.